

Donostia, 2017ko azaroaren 17a

## IDAZKARI NAGUSIARI

### HERRITARREN PERTZEPZIOARI BURUZKO INKESTARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluekin bat, honako KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, herritarren pertzepzioari buruzko inkestan emandako informazioari buruz hilabete honetako ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Joan den irailean, herritarren pertzepzioaren inkesta argitaratu zen. Enpresa batek gauzatu du hori, Donostian bizi diren eta 16 eta 74 urte bitarte dituzten 620 pertsonari telefono deiak eginez ekainean.

Inkesta bi zatitan banatu da: lehenengo zatia bizi kalitateri, segurtasunari, bizikidetzari eta merkataritza eta aisialdi eskaintzari buruzkoa da; bigarrena, aldiz, Gipuzkoako hiriburuko arazoei, parte hartzeari eta proiektu estrategikoei buruzkoa.

Zer datu eman diren kontuan hartuta, iruditzen zaigu datu gordin guztiak eman behar direla, ondorio zabalagoak atera ahal izateko, desberdintasun esanguratsuei buruzko ataletan datuak partzialak baitira. Adibidez, inkestaren bigarren zatian, 11. orrialdean, "ENPRESA BERRIAK ERAKARTZEKO AHALMENA" ezaugarriari dagokionez, balorazio hobereana jaso duten auzoak ikus ditzakegu, baina ezin dugu jakin zer auzotan jaso duen balorazio okerreana. Eta berdin gertatzen da "desberdintasun esanguratsu" esaten zaien koadro guztietan.

Gobernuak baietz erantzun izan dio zenbait aldiz datuak open data formatuan herritarren esku jartzeko egin dugun eskariari, herritarrek informazio gehiago atera ahal izateko egindako inkestatik. Alabaina, Bulego Estrategikoaren web orrian ez daude eskuragarri datu horiek formatu horretan.

Gure taldeak hil honetako batzordean egindako interpelazioa kontuan hartuta, Gardentasuneko zinegotzi ordezkariak esan zuen inkesta osoa herritarren eskura jartzea ez zela interesgarria herritar guztientzat, eta erantsi zuen hura argitaratzeak ez zuela gardentasun handiagorik ekarriko bere ustez.

Gogorarazi nahi dugu PNVren eta PSEren gobernu programan garrantzi handia eman zitzaiola Udalaren web orrian, Gardentasun Atarian, jarriko zen open data eremuari. Herritarren Inkestak donostiarrek hiriko bizimoduari buruz duten ikuspegiari buruzko informazio esanguratsua ematen du, eta osoki argitaratu beharko litzateke. Edonola ere, iruditzen zaigu udal taldeek informazio osoa izan behar dutela eskuragarri, ondorioak atera izateko.

Horregatik guztiagatik, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio eman diezaiela gainerako udal taldeei 2017ko Herritarren pertzepzioari buruzko inkestan jasotako informazio guztia, inkestari buruz orain arte emandako informazioa zabaltzeko aukera emango duten aldagai posible guztiak aztertu ahal izateko.
2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio argitara ditzala Udalaren web orrian, open data formatuan, 2017ko Herritarren pertzepzioari buruzko inkestarako egindako estatistika guztiak, herritarrek jasotako informazioa eskuragarri izan dezaten.

3. Donostiako Udaltzakeria udal Gobernuari eskatzen dio argitara ditzala Herritarren pertzepzioari buruzko inkestaren ondorioak sexuka bereizita, alderaketak egin ahal izateko, eta, horrela, hirian gizonen eta emakumeen benetako berdintasuna sustatzen duten politika publikoak sortzeko oinarriak finkatu ahal izateko.

Sin.: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.